

Donostia, 2023ko urriaren 23a

## 143/23 PRENTSA OHARRA

### ALDAKETAK URRIAREN 25EAN, ASTEAZKENEAN, EGINGO DEN MANIFESTAZIOA DELA ETA

Urriaren 25ean, asteazkenean, manifestazioa egingo da Donostian, **11:30etik 13:00etara** gutxi gorabehera, eta ondorioz aldaketa hauek egingo dira Dbuseko zerbitzuetan:

#### • 5-Benta Berri, 16-Igeldo, 18-Seminarioa eta 25-Benta Berri-Añorga:

- Erdialderantz: bukaerako geltokiak Urbieta 6an eta Urbieta 20an edukiko dute, hurrenez hurren.  
Askatasunaren Hiribidea 31ko geltokia, Okendokoak, Boulevardekoa eta Gipuzkoa Plazakoa kenduko dira eta **Urbieta 6ra edo Urbieta 20ra** eramango dira, hurrenez hurren.
- Antigu alderantz: ohiko ibilbidea Urbieta 6-20tik aurrera.  
Boulevardeko geltokiak eta Gipuzkoa Plazakoa kenduko dira eta **Urbieta 6ra edo Urbieta 20ra** eramango dira, hurrenez hurren.

#### • 26-Amara-Martutene eta 28-Amara-Ospitaleak:

- Erdialderantz: ez dute ibaiaren aldetik jarraituko, eta Antso Jakitunetik Mendeurrenerantz eta Easo kalerantz jarraituko dute. Askatasunaren Hiribidetik Urbieta kalerantz iritsiko dira eta Urbieta 6an-12an egingo dituzte bukaerako geltokiak.  
Okendoko geltokia, Boulevardekoak, Gernikako Arbolakoa eta M<sup>a</sup> Cristina Zubikoa kenduko dira. **Urbieta 6ra eta 12ra** eramango dira.
- Amara alderantz: ohiko ibilbidea Urbieta 6-12tik aurrera.  
Boulevardeko geltokiak kenduko dira eta **Urbieta 6ra eta 12ra** eramango dira.

#### • 19-Aiete-Bera Bera:

- Erdialderantz: Aldapetatik jaistean Easotik eta Askatasunaren Hiribidetik sartuko da, eta bukaerako geldialdia Urbieta 6an egingo du.  
Okendoko eta Gipuzkoa Plaza-Peñafloridako geltokiak kenduko dira. **Urbieta 6ra** eramango dira.
- Aiete alderantz: ohiko ibilbidea Urbieta 6tik aurrera.  
Gipuzkoa Plaza-Peñafloridako geltokia kenduko da. **Urbieta 6ra** eramango da.

• **8 Gros-Intxaurrondo, 13-Altza eta 14-Bidebieta:**

- Erdialderantz: autobusak Colón pasealekuraino baino ez dira iritsiko, eta Mirakruz-Pinudian egingo dute bukaerako geldialdia (8 linea, Iparragirren).

Kursaaleko geltokia, Boulevardekoak, Gipuzkoako Plazakoa eta Askatasunaren Hiribidekoa kenduko dira. Mirakruzera eramango dira (8 linea Iparragirrerera).

- Auzoetarantz: ibilbide normala Mirakruz-Pinuditik (8 linea Iparragirren).

Boulevardeko geltokiak, Gipuzkoa Plazakoa eta Askatasunaren Hiribidekoak kenduko dira. Mirakruzera eramango dira (8 linea Iparragirrerera).

• **9-Egia-Intxaurrondo:**

- Erdialderantz: autobusak Frantzia pasealekutik, M<sup>a</sup> Cristina Zubitik eta Foruen pasealekutik iritsiko da Santa Katalina Zubiraino (bukaerako geltokia), eta ohiko ibilbideari ekingo dio berriro.

Euskadi Plazako geltokia, Askatasunaren Hiribidea 6koa eta Okendo 18koa kenduko dira. **Santa Katalina Zubira** eramango dira.

- Egia alderantz: Santa Katalina Zubitik (bukaerako geltokia) bere ibilbideari berrekingo dio Egiarantz.

Okendo 18ko geltokia eta Askatasunaren Hiribidekoa kenduko dira. **Santa Katalina Zubira** eramango dira.

• **40-Gros-Antiguo-Igara:**

- Antiguo alderantz: Colón pasealekutik aurrera, Frantzia pasealekutik, Iparreko Geltokitik (geldialdia), F.G. Lorcatik, Agirre Lehendakariaren Zubitik, Zuaznabar kaletik eta Pio XII.etik joango da. Antso Jakitunetik, Easo kaletik eta San Martinetik jarraituko du, San Martin 48an geldialdia egingo du (behin-behineko postea) eta hemendik aurrera ohiko ibilbideak berreskuratuko ditu.

Askatasunaren Hiribidea 18ko geltokia eta Urbietta 20koa kenduko dira. **Colón pasealekura, Iparreko Geltokira eta San Martin 48ra** eramango dira.

- Gros alderantz: Kontxa pasealekutik aurrera, Zubietatik, Arrasatetik, Urbietatik (geldialdia Urbietta 38an eginez), Mendeurrenetik, Gernikako Arbolatik, Foruetatik eta Santa Katalina Zubitik (geldialdia behin-behineko zutoinean) joango da, eta ohiko ibilbideari ekingo dio berriro Mirakruzerantz.

Askatasunaren Hiribidea 21, Askatasunaren Hiribidea 19 eta Askatasunaren Hiribidea 3 geltokiak kenduko dira eta **Urbietta 38ra eta Santa Katalina Zubira** lekualdatuko dira.

• **36-San Roke-Aldakonea:**

- San Roke alderantz: Frantzia pasealekutik joango da, Iparreko Geltokitik, Primetik, Morazatik, Urbietatik, Pedro Egañatik, Easo kaletik eta Askatasunaren Hiribidetik, eta Urbietta 12an bere ohiko ibilbideari helduko dio.

Euskadi Plazako geltokia eta Askatasunaren Hiribidea 20koa kenduko dira, eta **Iparreko Geltokira eta Urbieta 12ra** lekualdatuko dira.

- Aldakonea alderantz: Gernikako Arbolatik-Foru pasealekutik aurrera ez da Etxaide kalera sartuko. Santa Katalina Zubiraino (geldialdia behin-behineko zutoinean) joango da, eta ohiko ibilbidea egiteari ekingo dio.

Askatasunaren Hiribidea 3ko geltokia kenduko da, eta **Santa Katalina Zubira** lekualdatuko da.

#### • **37-Rodil-Zorroaga:**

- Zorroaga alderantz: Colón pasealekutik joango da, eta Frantzia pasealekutik, eta hortik aurrera ohiko ibilbidea egiten jarraituko du.

Kursaaleko geltokia, Gipuzkoa Plazakoa eta Askatasunaren Hiribidea 7koa kenduko dira, eta **Colónera eta Iparreko Geltokira** lekualdatuko dira.

- Rodil alderantz: Gernikako Arbolatik-Foru pasealekutik aurrera ez da Etxaide kalera sartuko. Santa Katalina Zubiraino (geldialdia behin-behineko zutoinean) joango da, eta ohiko ibilbidea egiteari ekingo dio.

Askatasunaren Hiribidea 3ko geltokia kenduko da, eta **Santa Katalina Zubira** lekualdatuko da.

#### • **45-Renfe-Bus Geltokiak-Antiguo-Aiete:**

- Antiguo alderantz: F.G. Lorcarantz jarraituko du, Agirre Lehendakariaren Zubirantz, Zuaznabar kalerantz eta Pio XIIrantz. Antso Jakitunetik, Easo kaletik eta San Martinetik jarraituko du, San Martin 48an geldialdia egingo du (behin-behineko postea) eta hemendik aurrera ohiko ibilbideak berreskuratuko ditu.

Askatasunaren Hiribidea 18ko geltokia eta Urbieta 20koa kenduko dira. **Iparreko Geltokira eta San Martin 48ra** eramango dira.

- Geltokiak alderantz: Kontxa pasealekutik aurrera, Zubietara, Arrasatera, Urbietara (geldialdia Urbieta 38an eginez), Mendeurrenera, Gernikako Arbolara, Foruetara eta Santa Katalina Zubira joango da (geldialdia behin-behineko zutoinean), ohiko ibilbideari ekingo dio berriro Geltokietarantz.

Askatasunaren Hiribidea 31ko geltokia kenduko da, eta **Urbieta 38ra eta Santa Katalina Zubira** lekualdatuko da.

Informazio gehiagorako, Dbuseko webgunera jo ([www.dbus.eus](http://www.dbus.eus)) edo 900 840 146 telefono zenbakira deitu.